

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek egin behar dituenak dira bere negozio-ereduak funtziona dezan lortzeko. Jarduera hauek beharrezkoak dira enpresaren helburuak betetzeko eta epe luzerako bideragarritasuna mantentzeko.

Enpresa gehienetan funtsezko jarduera batzuk daude;

- **Ekoizpen edo zerbitzuaren eskaintza:** Negozioaren muina osatzen duten produktuen fabrikazioa edo zerbitzuak ematea. Gure kasuan, ez dugu zerbitzu zehatza ekoiztu behar, zerbitzu bat delako.

- **Arazoen konponketa:** Bezeroarentzako arreta, erreklamazioen kudeaketa eta salmenta osteko euskarri izateko gaitasuna. Kasu honetan, bezeroen arazoak eta zalantzak argitzeko, harreran langile bat izango dute familiek eskuragarri. Hortaz aparte, webgunearen edo aplikazioaren bidez galderak egiteko eta erantzuteko atal bat egongo da, beste gauzen artean.

- **Plataforma edo sareko jarduerak:** Sistema informatikoen mantentzea eta segurtasuna. Gure parkea teknologia aldetik nahiko aurreratua dela esan genezake eta ordenagailuetan software instalatuta izaten saiatuko gara beti, gure bezeroen segurtasuna bermatzeko.

Laburbilduz, eskaintzen ari garena zerbitzu bat denez, produktu bat izan beharren, garrantzitsua da web gunearen kudeaketa-jarduera, promozioa eta mantentimendua egoki zaintzea ezinbestekoa dela uste dugu.